



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN (BBUP) GALINDOKO HUA ALUMINIO POLIKLORUROZ HORNITZEKO KONTRATUA EGITEKO. ESPEDIENTE-ZK.: 3293.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Koldo Lekue Marcos
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zenbakia: 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.- Kontratuaren xedea: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Galindoko HUA aluminio polikloruroz hornitzeko kontratua egitea. 2.- Bete beharreko premiak: Agiri hau berria da Galindoko HUArako. Ingurune hartzailean duen inpaktua murrizteko, "Tratamendu primarioa berritzeko eta hobetzeko proiektuak" barne hartzen du dekantazio lastatua, euri-garaian 6 m³/s tratatzeko gai dena. Teknologia horrek koagulazio eta malutapen bidez funtzionatzen du. Horretarako, erreaktiboak behar dira, eta, beraz, agiri hau egin da lehenengo aldiz Galindoko HUArako. 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Lizitazioa kontratu bakar bat adjudikatzeko da, prestazioak edo kontratuaren xedea hainbat lotetan banatu gabe. Horniketa ezin da lotetan banatu, horniketaren xedea produktu bakar bat baita.
4.- CPV: 24312123-2 Aluminio polikloruroa
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.-Izaera juridikoa ☒ Administratiboa ☐ Pribatua



C.-KONTRATUAREN PREZIOA	
1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	LAUREHUN ETA HIRUROGEI MILA EURO (460.000,00 €), BEZik GABE.
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 920.000,00 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ	
3.-Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Aleko prezioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena: Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 22113-169.22 - 2026. URTEA: 150.000,00 € - 2027. URTEA: 310.000,00 €	
5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☐ EZ Aplikatzekoa den formula:	
6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.-Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez. Hilero, hilabete bakoitzeko lehenengo bost egunen barruan, egindako horniketen zerrenda balioetsia erantsiko da, eta hauek adieraziko dira: data, kopurua (kg), produktuaren erreferentzia eta eskaeraren arduradunaren izena. Zerrenda horri egindako horniketen fakturak erantsiko zaizkio.	
8.-Konturako ordainketak: Ez da aplikatu behar	

D.-KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa: URTEBETE (1).
2.-Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.-Luzapena ☒ BAI ☐ EZ Urte BATEKO (1) luzapena.
4.- Berme-epea: Gutxienez sei hilabete, eskariak jasotzen direnetik hasita. Fabrikazio- edo garraio-akatsi egoztekoak diren itzulketa-gastuak adjudikaziodunaren kontura izango dira.
5.- Kontratua gauzatzeko tokia: Galindoko HUA
6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.



E.- BERMEAK

- ☒ Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena —amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumenik handiena izan duen urtea— kontratuaren batez besteko urteko kopurua halako bat izan beharko da gutxienez. (460.000,00 €)

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- Azken hiru urteetan egindako antzeko hornikuntzen zerrenda (CPV kodea: 24312123-2 aluminio polikloruroa, bereziki urak tratatzeko aplikazioan), haien aplikazioa, kopurua, zenbatekoa, datak eta hartzaile publiko edo pribatua den adierazita, baldin eta gehien gauzatutako urteko zenbateko metatua kontratuaren batez besteko urtekoaren % 50 edo gehiago bada. Hartzailea erakunde publikoa izan bada, organo eskudunak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira egindako hornikuntzak; subjektu pribatua izan bada, hark egindako ziurtagiriaren bidez edo, ziurtagiri hori izan ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez, eta enpresaburuak dituen eta prestazioa egin duela egiaztatzen duten dokumentuak entregatuta horrekin batera; hala badagokio, ziurtagiri horiek zuzenean emango dizkio agintaritza eskudunak kontratazio-organismoari.
- A1203ren bermatutako gutxienerako edukiaren konpromiso sinatua. Balio hori erabiliko da produktu komertzialaren kantitatea kalkulatzeko formularen.
- LZPren 2. apartatuan ("Zehaztapen teknikoak") zehaztutako parametroak betetzen direla frogatzea, egiaztatutako laborategi batean egindako azterketa baten bidez. Azterketa hori eskaintza egiteko azken eguna baino 12 hilabete lehenago egin behar da.
- Produktuen segurtasun-orriak, informazio toxikologikoa. REACH araudia betetzen dela ziurtatzen duten dokumentuak.
- Behar diren ADRren garraio-baimenak egiaztatzea.
- Sinatutako konpromisoa, dioena premiaz eskatzen diren hornigaiak 48 ordutan entregatuko direla gehienez ere eskaera egiten den unetik aurrera zenbatzen hasita.
- Fabrikatzailea ez bada, produktuaren fabrikatzaileak sinatutako konpromiso-gutun bat entregatuko du. Gutun horretan, produktuaren hornikuntza bermatuko da kontratuaren iraunaldirako.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
3.- 2. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskinaren ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Kodea	Izena	Aleko prezioa (produktu komertzialaren €/kg)
1.1	Aluminio polikloruroa, Galindoko HUAra (zisterna)	
1.2	Aluminio polikloruroa, Galindoko HUAra (1000 litroko edukiontzia)	

b) Kontratuaren aurrekontua.

Kodea	Izena	Neurketa (A1203ren kg)	Aberastasuna (A1203ren kg/produktu komertzialaren kg)(*)	Aleko prezioa (produktu komertzialaren €/kg)	(**) Zenbatekoa (€)
1.1	Aluminio polikloruroa, Galindoko HUAra (zisterna)	225.000			
1.2	Aluminio polikloruroa, Galindoko HUAra (1000 litroko edukiontzia)	7.000			
				GUZTIRA	

(*) Kontuan hartutako aberastasuna bermatutako gutxieneko balioa izango da, kaudimen teknikoan eskatutakoaren arabera.

(**) Honela kalkulatu: (Neurria+Aberastasuna) * Aleko prezioa

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak egiteko lekua (bakarrik Administrazio-klausula partikularren agiriaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki egitea ☒ BAI ☐ EZ



I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

Eskaintza elektronikoak egiteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Kontratua prozedura ireki bidez adjudikatuko zaio preziorik baxuena duen eskaintza aurkezten duen lizitatzaleari. Izan ere, egin beharreko horniduraren ezaugarriak direla-eta, adjudikatzeko irizpide erabakitzaile bakarra da.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzale bakarra izanik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino % 25 txikiagoa denean.
- Bi lizitatzale izanik, beste eskaintzaren aldean % 20 baino txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzale izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa kontuan hartuta % 10 baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokatzen joko da aldea % 25 baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzale edo gehiago izanik, egindako eskaintzen batezbesteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Dena den, horien artean batezbestekoa baino % 10 handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak egin dituztenean, ustezko anormaltasuna duten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, kontuan hartu gabe



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

eskaintza bakarka egin duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailerak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Ez da aplikatu behar

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko partikularren agirian adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko partikularren agirian adierazitako kasuak eta ekintzak.

Zigor hauek aplikatu ahal izango dira, eta haien likidazioa berehala egingo da: ordaintzeko dagoen lehenengo fakturatik kenduko da zenbatekoa, edo, hala badagokio, amaierako likidaziotik edo eratutako behin betiko bermearen kargura.

Zigorak aplikatzeak eta ordaintzeak ez du baztertzen BBUPk kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzearen ondorioz sortutako kalte-galeren ordaina jasotzeko eskubidea.

Baldintzak bete ezean, zigor hauek aplikatuko dira:

Pisaketa-kontroletik eratorritakoak

BBUPk lortutako pisaketa hornitzaileak eskainitakoa baino txikiagoa bada eta bien arteko aldea hornitzailearen pisuaren % 3tik gorakoa bada, apartatu honetan deskribatutako zigorra aplikatuko da.

Aipatutako tolerantzia gainditu den bidalketa bakoitzerako formula honen bidez kalkulatu da:

$$S_1 = 1,1 \times \frac{a}{100} \times Q \times Pn$$

donde:

S1 = importe de la sanción correspondiente al envío.

a = tanto por ciento de diferencia entre el pesaje del suministrador, según su ticket de pesaje y albarán y el obtenido por el CABB en el control realizado.

Q = peso en kilogramos de la entrada, según el albarán de entrega.

Pn = precio por kilogramo a aplicar, cuyo valor se establece en la relación de precios unitarios.

Kalitate-kontroletik eratorritakoak

Kontrol-parametrorako gehieneko tolerantzia gainditu dela detektatu den bidalketa bakoitzerako kalkulatu da, formula honen bidez:

$$S_2 = 1,5 \times \frac{b}{100} \times Q \times Pn$$

Argibideak:

S2 = bidalketari dagokion zehapenaren zenbatekoa.

B = kalitate-parametroaren gutxieneko balio onargarriaren (balio nominala ken tolerantzia) eta analisiak lortutako balioaren arteko aldea, ehunekotan.

Q = entregaren pisua kilogramotan, emate-agiriaren arabera.



M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Pn = aplikatu beharreko kilogramoko prezioa, aleko prezioen zerrendan ezartzen dena.

Entrega-epea ez betetzetik eratorritakoak

Ezarritako entrega-epea betetzen ez bada hornitzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, horniketa horri dagokion zenbatekoaren % 25eko zehapena ezarriko da, atzeratutako egun bakoitzeko.

Entrega-epea behin eta berriz betetzen ez bada hornitzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, horniketa horri dagokion zenbatekoaren % 50eko zehapena ezarriko da atzeratutako egun bakoitzeko, eta, gainera, BBUPk kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke, fidantza galtzea barne, eragindako kalteen konpentsazio gisa.

Laguntza teknikoko zerbitzua ez betetzetik eratorritakoak

250 euroko zigorra ezarriko da eskaintako laguntza teknikoko zerbitzua atzeratzen den edo betetzen ez den egun bakoitzeko.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK ENTREGATU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

N.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra

☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Kontratua sinatzen den egunetik aurrera, adjudikaziodunak berehala egin ahal izango du horniketa.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Adjudikaziodunak ordezkari bat izendatuko du, kontratuaren baldintzei eragiten dieten alderdi guztietan jarduteko eta enpresa ordezkatzeko gaitasun nahikoa duena.